

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

Gaubea aldeko lurzatiak bateratzeko prozesuaren (2 fasea, 2 sektorea) ondorioz sortzen diren ordezkoko lursailen jabetzea jakinaraztea

Honako hau jakinarazten zaie interesa duten guztiei Gaubea aldeko lurzati bateratzeaz (2. fasea, 2. sektorea), zeinaren onura publikoa adierazi baitzen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 20ko 38/2010 Foru Dekretuaren bidez:

Lehenengoa. Nekazaritza Zuzendaritzak adostu du ordezkatzeko lursail berrien behin betiko jabetzak ematea, Gaubea aldeko lurzatiak bateratzeko erabakia (2 fasea, 2 sektorea) betetzeko, behin erabaki horren aurka aurkeztutako gora jotzeko errekurtsioak ebatzita eta ordezkatzeko lursail berrien mugaketa eta mugarritze lanak eginda.

Bigarrena. Horiek horrela, jakinarazten da jabetzearen data iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo eguna izango dela.

Hirugarrena. Nekazaritza Eraberritu eta Garatzeko Legearen 221. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, ordezkatzeko lursailak jabeen eskura jarriko dira haiez jabetu daitezkeen, eta hori egin eta hurrengo hogeita hamar egunetan, interesdunek erreklamazioak aurkeztu ahaliko dituzte, lursail berrien benetako tamainaren eta lurzatiak bateratzeko espedientean agertzen denaren arteko aldea ehuneko 2koa baino handiagoa bada. Erreklamazioarekin batera, peritu txostena aurkeztu beharko dute erreklamaziogileek.

Laugarrena. Jabe eta kultibadore guztiak behartuta daude bideak, hustubideak, ureztatzeko ubideak eta zortasunak errespetatzera, inguruko lursail guztietara sartu eta haiek landu ahal izateko, eta horiek guztiak erabiltzen eta kontserbatzeko lanak egiten utzi behar dute, harik eta lurzatiak bateratzearen ondoriozko bide eta hustubide sare berriak erabilgarri izan arte.

Bosgarrena. Kontuan izanda bateratze prozesuaren eremuko lursail gehienetan zuhaitzak eta zuhaixkak daudela, eta horiek paisaia balio handia baina balio material urria dutela, eta lurzatiak bateratzeak ekarriko duen onura jabetzak antolatzea eta mugarritzea bera izango dela, bateratze espedientean balio hori ez da aparte zenbatetsi, baina mota bakoitzeko unitate balioan sartu da inplizituki.

Horrenbestez, lurgaina ordezkatzeko lursailetan sartu da eta, beraz, emandako lurzatiaren aurreko jabeek ezin dute kendu.

Ordezkatzeko lursailen jabe berriek ezingo dute sastrakarrik kendu edo landararik moztu, ez eta lurgainik ere, Mendi Zerbitzuaren berariazko eta idatzizko aldeko baimenik izan ezean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a

Nekazaritza Garapenerako Zerbitzuaren burua
JOSÉ ANTONIO OCIO ORIVE